



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAIN TASUN
CAMPUSA
CAMPUS
DE EXCELENCIA
INTERNACIONAL

101 BOLETINA: 2019KO URTARRILA BOLETIN 101: ENERO 2019

Vitoria-Gasteizko
Ingeniaritza Eskola

Escuela de Ingeniería
de Vitoria-Gasteiz

www.ehu.eus




ÍNDICE**Graduazio ekitaldia****Akademia antolakuntza****2019/2020 ikasturtean gradu bikoitz berriak eskaintzea****Garapen iraunkorrari loturiko GRALen sariak****Nazioarteko akordioak****Kideen aitordenak****Robodrill Mekanizatu Zentro berria****Titulazioen sustapena****Zientzia Astea****Europeana proiektua****Jardunaldiak eta****bisitak****Bisita Michelin fabrikara****Hitzaldia: Ekoizpenaren Antolakuntza****Connect2018 Jardunaldia****UPV/EHUko Ikasleen I. Kongresua****Orientatu jardunaldia****GoMobility 2018 Segurtasunari eta Datuen Babesari****buruzko X. Jardunaldia****Amorebietako IAC Enpresa Ikasgelaren****inaugurazioa****Jardunaldia: Araba 4.0: Zibersegurtasuna****Amadeo Álvarez****hitzaldia****Jarduerak****Enpresen arteko lasterketa****Kontzertua: Together for****Christmas****Aitorpenak eta argitalpenak****Inizia T-Iker Sariaren I.****edizioa****Ortzi Akizuren doktorego****tesia****Ikasleen Txokoa:****Motostudent 2018: CERNeko****tallerrean parte hartzea****Posterren erakusketa****You Tube** Instagram

ACTO DE GRADUACIÓN

Joan den urriaren 26an, 2017/2018 ikasturtean ikasketak bukatu zituzten ikasleen Graduazio Ekitaldia egin zen, eskolako Ekitaldi Aretoan. Graduatu ziren 112 ikasleetatik askok agintarien eskutik jaso zuten lan munduan ate ugari irekiko dizkien titulu hori.

Ekitaldian, Eskolako abesbatza emanaldia eskaini zuen; besteak beste, Gaudeamus Igitur edo Jon Denver abeslariaren Take me home abestiaren bertsio zoragarria abestu zitzuten. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Arabako campuseko errektoreorde Iván Igartua izan zen ekitaldiaren burua, eta han izan ziren, halaber, Ramiro González, Arabako diputatu nagusia, Itziar Gonzalo, Vitoria/Gasteizeko bigarren alkateordea, Miren Artaraz, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria, Pascal Gómez, SEAko presidentea eta Javier Sancho, Eskolako zuzendaria. Ekitaldi horretan, titulazio bakoitzeko espediente onenei sariak banatu zitzaizkien, eta SEA Empresas Alavesas erakundea omendu zen, Eskolarekin duen lankidetzak eskertzeko.



"112 ikasleen Graduazio Ekitaldia eta Eskolako abesbatzaren emanaldia ikusi nahi baduzu, joan gure webgunera eta egin klik Graduazioa eta ikasle ohiak orriko Video Streaming atalean

GESTIÓN ACADÉMICA

Impartición de Nuevos Dobles Grados curso 2019/2020 2019/20 ikasturtean gradu bikoitz berriak eskaintzea

Vitoria/Gasteizeko Ingeniaritza Eskolak bi gradu bikoitz berri eskainiko ditu 2019-2020 ikasturtean, joan den azaroaren 13an UPV/EHuko Gobernu Kontseiluak onartutakoari jarraikiz. Hauek dira titulazio berriak:

- Ingeniaritza Mekanikoa / Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza gradu bikoitza; Vitoria/Gasteizeko Ingeniaritza Eskolak koordinatuko du, eta ikastegi horretan eta Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Araba) irakatsiko da.
- Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza / Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza gradu bikoitza; Vitoria/Gasteizeko Ekonomia eta Enpresa Fakultateak koordinatuko du, eta ikastegi horretan eta Vitoria/Gasteizeko Ingeniaritza Eskolan irakatsiko da.

Arlo akademikoko lehentasunetako bat da ikastegien eta titulazioen arteko lankidetzak sustatzea, gradu bikoitzak eskaintzeko. Gradu bikoitzek gero eta gehiago eskatzen digun testuinguru ekonomiko eta sozial bati erantzuten diote; izan ere, ezinbestekoa da gure unibertsitatea beharizan berrietara egokitzea eta gure ikasleen kualifikazioa gero eta malguagoa eta konplexuagoa izatea; halaxe azaldu du errektoretza-taldeak.

Premios TFGs Desarrollo Sostenible: Fernando Rico Alonso

Garapen iraunkorrari loturiko GRALen Sariak Fernando Rico Alonso

Berrikuntzako Errektoreordetzak antolatutako UPV/EHuko Ikasleen I. Kongresuan garapen iraunkorrari buruzko zortzi GRAL saritu ziren. GRAL horien egileetako bat gure ikasle Fernando Rico Alonso zen.

Saritutako lanek ekarpen kritiko eta eraikitzailea egiten dute, eta zorrotzak eta originalak dira, Nazio Batuen Erakundearen Garapen Iraunkorrerako Helburuen eta 2030 Agendaren bidez ezarritako esparruarekin bat.

Fernando Rico Industria Kimikaren Ingeniaritzako ikaslea da, eta bigarren saria jaso zuen Planeta kategorian, GRAL honi esker: Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko (Osakidetza) Ingurumen Egoeraren Ebaluazioa.

Zorionak Fernando!!!

Acuerdos Internacionales

Nazioarteko akordioak

Duela gutxi, Eskolak hainbat akordio sinatu ditu ikasleen nazioarteko mugikortasuna ahalbidetzeko; besteak beste, hauek: Tallineko (Estonia) Tal Tech unibertsitatearekin akordioa, Ingeniaritza Mekanikoa eta Industria Elektronika eta Automatikako ikasleentzat, eta Alemaniako Hochschule Landshut unibertsitatearekin akordioa, ingelesez edo alemanez dakiten ikasle guztientzat.

Kontsulta itzazue Nazioarteko Sakontze Aipamenaren modalitateak eta aukerak, curriculumak osatzeko eta bizi osoan zehar zuekin izango dituzuen esperientzia ahaztezinak bizitzeko.

Reconocimiento a compañeros y compañeras 2018

Kideen aitopenak 20

2018ko Eskolaren azken batzarrean, hainbat kideren lana aitortu zen; izan ere, gurekin ibilbide luzea egin ondoren, aurtien bene-benetan merezitako erretiroa hartu dute. Hauek dira kide horiek:

- Ignacio Apraiz Buesa
- Jesús Arregi Bengoa
- José Miguel Edeso Fito
- Gracia Molina Trescanto
- Arantza Mugarza Uribarren
- Marino Navazo Muñoz
- José Antonio Sainz Gómez
- M^a Victoria de Urresti García

Horrez gain, Luis María Berrio-Ochoaren lana ere aitortu da, 25 urte bete baititu UPV/EHUn lanean.

Zorionak guztiei!

Nuevo Centro de Mecanizado Robodrill de Fanuc

Fanuc-en Robodrill Mekanizatu Zentro berria

Duela gutxi, Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolako makina erremintaren laborategiak (Ingeniaritza Mekanikoa Saila), UPV/EHUko Arabako Campusean dagoenak, FANUCen Robodrill Mekanizatu Zentro berria txertatu du bere ekipamenduan, Arabako Foru Aldundiak Automozio Ingeniaritzako Gradurako ekipamendua erosteko emandako diru laguntzari esker.

Ekipamendu horri esker, Vitoria/Gasteizko Ingeniaritza Eskolan irakasten diren Ingeniaritza Graduetako eta Ikasketa Osagarrietako etorkizuneko ikasleek CNC mekanizatuko eta 4.0 Industriako teknologiarik berrienak erabiltzen ikasiko dute. Halaber, Student Moto eta Formula lehiaketetan parte hartzeko piezak fabrikatu ahal izango dituzte. Horrez gain, Ingeniaritza Mekanikoa Sailean eskuragarri dagoen ekipamendua osatzen du, irakasleek ikerketetan erabil dezaten.



Argazkia. Amaia Calleja, Ingeniaritza Mekanikoa Saileko ataleko koordinatzaile eta mekanizatu aurreratuan aditua, eta Joseba Ortiz de Villalba Ingeniaritza Mekanikoa Saileko ataleko laborategiko teknikaria.

PROMOCIÓN DE LAS TITULACIONES

Zientzia astea 2018

Zientzia astea 2018

Azaroaren 8tik 11ra, UPV/EHUko Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren XVII. Zientzia Astea egin zen Bibat museoan. Ekitaldi orokorra da, jende ororentzat irekia, eta Eskolako zenbait sailek parte hartu zuten bertan.

Aurten, ura izan zen gai nagusia, eta 30 jarduera, txoko eta hitzaldi baino gehiago antolatu ziren. Arkeologia, elikagaien dastaketak, mikroorganismoak edota zientzia hizkuntzan izan ziren ekimenean izan genituen elementuetako batzuk.

Aurten, Eskolako kalibrazio meteorologikoko laborategia ere hantxe izan zen, Geografia Fakultatearen standean; standaren izena Datutik Grafiko Klimatikora izan zen. Haize orratzak, barometroak, plubiometroak eta gaztetxoek ezagutzen zituzten tresna batzuk hain ezagunak ez ziren beste batzuekin konbinatzen ziren bertan, adibidez, disdrometroekin.

Laburbilduz, aukera bikaina izan zen etorkizuneko ikasleei zientzia modu dibertigarrian hurbiltzeko.



ZientziaAstea

Motostudent taldea ere hantxe izan zen, aurten egindako V. ediziotik iritsi berrian.

Bibat Museoara sartzean, begiak ezinbestean joaten ziren Eskolaren standean zegoen motorrera.

Bertara iritsitakoan, ikastoletako haurrek adi entzun zituzten taldeko kideen azalpenak, eta txundituta begiratu zioten haiek bezalako ikasleek egindako lanari.

Standez aldatzeko tutuak jo zuenean, ikasle batek baino gehiago esan zuen argi zekiela etorkizunean Automozio Ingeniaritza ikasiko zuela.



Europeana proiektua

Eskolako Matematika Aplikatua Saileko irakasle Álvaro Rodríguezek eta Meatze eta Metalurgia Ingeniaritza eta Materialen Zientzia Saileko irakasle José Manuel Vallelek Europeana proiektuan parte hartu dute.

Proiektu horren helburua da Europa mailako sarbide askeko liburutegi bat sortzea, Europako kultur ondarea ezagutarazteko. UPV/EHUko ADDI erakunde errepositorioan gordetako informazioa European plataformara egokitzeko, zenbait betekizun bete behar dira, hala nola formatu jakin bat duten fitxategiak egituratzea (oro har, irekiak); gainera, informazioaz beraz gain, honako hauen deskripzioari buruzko metainformazioa izan behar dute: edukiak, autoretzak, erabiltzeko eta erreproduzitzeko eskubideak, kokagunea, etab.

Ondarearen Dokumentazio Geometrikoko Laborategiak Europeana erabiltzea sustatzen du ekoizpen zientifikoko materialak ezagutarazteko; era horretan berma daiteke informazioa kontserbatzen dela eta ezagutzen transmisioa gertatzen dela.

JORNADAS Y VISITAS

Michelinen Vitoria/Gasteizko planta bisitatzea Visita a la planta de Michelin Vitoria-Gasteiz

Automozio graduko 2. mailako 13 ikasle, Eskolako Juan de Gracia, Beñat Garcia eta Ruperta Delgado irakasleekin batera, enpresa multinazionalak Araban duen fabrika bisitatzera joan ziren.

Ikasleek turismo tailerrak eta tailer zibilak bisitatu zituzten, bi taldetan banatuta. Han, enpresak egunerokoan gauzatzen dituen lanak bertatik bertara ikusteaz gain, fabrikako arduradunek erakundean zer lan egin zezaketen azaldu zien.

Zalantzarik gabe, aukera paregabea izan zen Michelin bezalako enpresa batek etorkizuneko ingeniariari zer eskain diezaikeen ikusteko.



Charla sobre Organización de la Producción Ekoizpenaren Antolakuntzari buruzko hitzaldia

Urriaren 24an, laugarren mailako Ekoizpenaren Antolakuntza irakasgaiaren barruan, Enpresen Antolakuntza Saileko irakasle Rosa María Río-Belver doktoreak eta Jesus María Larrañaga Lesaca doktoreak zenbait hitzaldi profesional antolatu zituzten. Industria Graduetako 4. mailako eta Informatikako 3. mailako 100 ikasle baino gehiago izan ziren bertan. Hauek izan ziren hitzaldiak:



1) Ekoizpenaren antolakuntza egunerokoan, Mercedes-Benz España SA enpresan. Hizlaria: Jon Guinea Ibañez de Garayo jauna, Mercedes-Benz

Hitzaldi hori ekoizpenaren antolakuntza ikasgaiaren amaieran eskaintzen da, Kanban eta Smed praktiken ondoren. Helburua da ikasgelan ikasitako ezagutzei balioa ematea, lanean ari den ekoizpen ingeniari baten bitartez.

2) Ekoizpenaren kudeaketa enpresan, SAP bidez. 2018ko azaroak 14

Hizlaria: Jose Ignacio Carasa Cruz. OREKA IT enpresako zuzendari teknikoa - SAP ingeniari-tza, Vitoria/Gasteiz.

Hitzaldi hau ekoizpenaren kudeaketa ikasgaiaren bigarren zatian eskaintzen da. Helburu du kontzeptu teorikoak enpresako praktiketara eramatea; kasu honetan, Oreka IT ingeniari-tza enpresak eskaintako SAP ekoizpen modulu bat erabilita. Eskerrak eman nahi dizkiogu Oreka ingeniari-tza enpresari, gure ingeniariak prestatzeko eskaini digun laguntzagatik.

Bi hitzaldiek bi orduko iraupena izan zuten, eta Industria Ingeniaritza graduetako 4. mailako eta Ingeniaritza Informatikoko 3. mailako ehun ikasle baino gehiago izan ziren bertan.

Connect 2018 jardunaldia

Gure zuzendari Xabi Sanchok eta Enpresekiko harremanetarako zuzendariordea Josean Ramosek Connect 2018 kongresuan parte hartu zuten joan den urriaren 18an. Kongresua Europa Biltzar Jauregian egin zen, eta sektore elektronikoaren eta telekomunikazioen sektorearen topagune izan zen.

Zuzendariak lehen mahai inguruan parte hartu zuen. Hau izan zen izenburua: Energia eta telekomunikazioa, gakoa pertsonak dira.



UPV/EHUko Ikasleen I. Kongresua

UPV/EHUko Ikasleen I. Kongresuaren harira, gure kide eta Kalitate eta Ingurumen Zuzendariorde Inmaculada Tazok hitzaldi honetan parte hartu zuen: UPV/EHUren ekarpena 2030 Agendaren Ekintza Planari.

Nazio Batuen Erakundeak 2030 Agendaren barruan sustatzen dituen Garapen Iraunkorreko Helburuak hemen dira, eta ez doaz inora. Jardunaldi horien bidez, Unibertsitatearen rola zehaztu nahi da, helburu horietako hainbatek dakartzaten aldaketak eragiteko agente gisa. Gainera, mundu iraunkor eta berdinzaleago bat lortzeko egin beharreko ekintzak zein diren azalduko digute.

Orientatu jardunaldia

Eskolako Zuzendaritzako kide Ruperta Delgado eta Inmaculada Tazok Orientatu jardunaldietan parte hartu zuten, ingeniari eta arkitektura adarreko arduradun gisa, Unibertsitateko hainbat ezagutza esparrutako beste hainbat kiderekin batera. Han izan ziren, halaber, Ikasleen eta Enplegarritasunaren errektoreordea eta Ikasleen zuzendaria.

Jardunaldien helburua izan da orientatzaileei informazioa ematea, sarbideari, ezagutza adarrei, graduari, irteera profesionali eta informazio hori aurkitzeko tokiei buruzko informazioa ematea, ikasleak orientatu ahal izan ditzaten. Galdera hauei erantzuten saiatu ginen: zer ondorio ditu DBH ondoren aukeratutako ibilbideak etorkizuneko unibertsitateko ikasleentzat? Zergatik pentsatzen dugu neskak erizainak edo irakasleak izango direla eta mutilak, berriz, ingeniariak edo informatikariak?



X Jornada de Seguridad y Protección de Datos de Carácter Segurtasunari eta Datu Pertsonalak babesteari buruzko X. Jardunaldia

Urriaren 31n, Segurtasunari eta Datu Pertsonalak babesteari buruzko X. Jardunaldia egin zen. Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolako Lengoaia eta Sistema Informatikoak Sailak antolatu zuen, AVPD eta CSIC Madrilen lankidetzarekin, eta INBOTS eta MINECO proiektuen babesarekin. Aurreko urteetan bezalaxe, doako jardunaldia izan zen, parte hartu nahi zuten pertsona guztiei irekia, bereziki Kudeaketa Informatikako Ingeniaritzako ikasleei irekia.



Eskolako irakasle Ismael Etxeberria eta Ekaitz Zuluetak hitz egin zuten jardunaldian. Hitzaldi horretan gai hauek landu zituzten, besteak beste: Blockchain teknologia, EBko DBEOk datuen babesean duen eraginaren ebaluazioa, ASLRen ebasioa, eta DEP ROP bidez, Esteganografia eta Big Dataren muga epistemologikoak.

GoMobility 2018

Horrez gain, Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola Iruneko GoMobility 2018 azokan ere izan zen. GoMobility nazioarteko ekitaldia da, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatua, Eusko Jaurlaritzaren lankidetzarekin, eta Ficobak (Gipuzkoako Azoka Esparrua) antolatzen du. Batzorde tekniko baten bidez egituratzen da, eta batzorde hori tokiko, estatuko eta nazioarteko mugikortasun iraukorraren alorreko adituek osatzen dute.

Automozio enpresak, ekipamendu elektrikoa, bateria fabrikatzaileak, energia hornitzaileak, azpiegitura eta sare enpresak, Oil & Gas, zerbitzu integratzaileak, konektibitatea eta Big Data hartzen dute parte, baita erakunde publikoek ere. Hala, topagune hori aukera ezin hobe da gure ikasleek ikus dezaten zeinen azkar eraldatzen den mugikortasun iraukorraren mundua.



Amorebietako IACn Enpresa Ikasgela inauguratzea

Azaroaren 27an, Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola Amorebietako IACko Enpresa Ikasgelaren inaugurazioan izan zen. Ikasgela horretan, enpresek proposatutako erronketatik bi ebatziko dituzte Eskolak. Eskolako irakasle Esti Apiñánizek eta Eskolako ikasle Nerea Bermejo, Daniel Arizmendarrieta, Miguel López de Juan, Maitane García, Iñigo Vitores eta Francisco Navarrok topaketa horretan parte hartu zuten. Han izan ziren, halaber, hainbat agintari; besteak beste, lehendakaria, Bizkaiko diputatu nagusia, Hezkuntza kontseilari Cristina Uriarte eta kontseilariorde Adolfo Morais.



Argazkian, egun horretan bertan IACko Cluster 4Gunen egindako bilera bat ageri da

Araba 4.0 jardunaldia Zibersegurtasuna

Ingeniaritza Eskola Araba 4.0 ekimenaren talde bultzatzaileko kidea da; hori dela eta, joan den urriaren 26an Arabako Teknologia Parkean egin zen zibersegurtasunari buruzko jardunaldian izan zen.

Bertan, 4.0 industriak eskaintzen dizkigun aukerak eta arriskuak aztertu genituen eta, aldi berean, azpimarratu zen beharrezkoa dela enpresak modu seguruan konektatuta egotea bezeroekin, hornitzaileekin eta inguruarekin.

Arabako lurraldean sustraitutako enpresa talde handietako ordezkariak, hala nola Mercedes-Benz, Michelin, Aernnova edo Tubacex enpresetakoek, euren zalantzak partekatu zituzten enpresek zibertetasunaren erronkari erantzuteko duten moduari dagokionez.

Horrez gain, hainbat adituk, hala nola Carmen Torranok (Eleven Paths, Telefónica) edo Román Ramírezek (RootedCON), euren ikuspuntua eman zuten, eta zibersegurtasunaren arloko sistema on bat diseinatzeko estrategia eraginkor bat garatzeko puntu kritikoak zein diren azaldu.

Jardunaldia bukatzeko, ziberreraso baten simulazioa egin zen, baita zaurgarritasunen analisi bat ere, Basque Digital Innovation Hubaren zibersegurtasun nodoan eta Tecnaliaren instalazioetan. OSANE Consulting eta Tecnalia arduratu ziren horretaz.



Amadeo Álvarez-en hitzaldia

Amadeo Álvarezek, Vitoria-Gasteizeko Michelin fabrikako zuzendari ohiak, hitzaldi bat eman zuen eta, bertan, automozioaren sektorearen egoerari buruzko argazkia aurkeztu zuen, hasierako garaietatik oso hurbil dugun etorkizuneko erronketara arte, 4.0 industria jarduketa esparru gisa dugula.

Hitzaldiak hainbat ardatz izan zituen. Hasteko, Amadeo Álvarezek hausnarketa txiki bat egin zuen mugikortasunak herrien hazkundean eta ongizatean duen garrantziari buruz, baita mugikortasunaren garapena ingurumena eta gizartea errespetatuz gauzatzearen garrantziari buruz ere.

Sarrera horren ondoren, Amadeok automozioaren historiako azken bi mendeetan barrena eraman gintuen, eta ibilgailuen lehen prototipoak nolakoak ziren gogorarazi zigun. Hainbat harribitxi aipatu zituen, besteak beste 1771ko Cugnoten lurrunezko automobila edo XIX. mende amaierako auto elektrikoak; paradoxaz, azken horiek berriz ere hizpide dira ia berrehun urte beranduago.

Historian zeharreko ikuspegi horren ondoren, automozioaren sektoreak munduan, estatuan eta, bereziki, Euskadiko industria ehunean duen garrantzia aztertu zuen. Hainbat datuk agerian uzten dute sektoreko 300 enpresak egiten duten lan handia; izan ere, enpresa horiek EAEko BPGren % 20 hartzen dute, eta 38.000 lanposturen erantzule dira, zuzenean nahiz zeharka.

Hori dena etorkizuna bistatik galdu gabe. Etengabe aldatzen den eta aukeraz beterik dagoen inguru horretan, 4.0 industria agertzen zaigu; Amadeo Álvarezek ustez, horrek berriro irauliko du sektorea. Hain zuzen ere, espero da ingeniari berriek etengabe aldatzen den eta ilusioa pizten duen sektore horretan aurkitzea euren tokia.

Plazer hutsa izan zen Amadeo gurekin izatea eta bere ibilbide aberatsa gurekin partekatzea.



Amadeo Álvarezek, Vitoria-Gasteizeko Michelin fabrikako zuzendari ohiak, mezu motibatzailea zuzendu zien "Automozioaren sektoreak zuen ezagutzak beharko dituzten lanpostu ugari sortuko ditu" hitzaldira bertaratu ziren ikasleei.

ACTIVIDADES

Enpresen arteko lasterketa

Aurten ere, Eskolak ordezkariak izan zituen enpresen arteko lasterketan, Arabako Campuseko beste parte hartzaile batzuekin batera. Amaia Calleja, Ingeniaritza Mekanikoa Saileko kidea, eta Unai Fernández, Ingeniaritza Nuklearra eta Jariakinen Mekanika Saileko kidea, hamargarren postuan sailkatu ziren kategoria mistoan.



Kontzertua: Together for Christmas

Abenduaren 16an, igandean, 18:00etan, EHUKo orkestra sinfonikoaren kontzertua izan genuen, Doru Arteniek zuzenduta eta Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolako Abesbatzak lagunduta, Vitoria-Gasteizko Jesús Guridi Musika Kontserbatorioan.

Haurtxo Txikia eta Agur Jaunak abestiak jo zituzten, entzuleen gozamenerako; han zeuden, besteak beste, UPV/EHUKo errektore ohi Iñaki Goirizelaia edota gaur egungo Arabako Campuseko errektoreorde Iván Igartua.



Euskaraldia

Eskolak, UPV/EHUK eta Arabako Campusak bezalaxe, Euskaraldian parte hartu du, eta bere komunitate osoa animatu du Ahobizi edo Belarriprest gisa parte hartzera.

Parte hartzaileek Eskolako atezaintzan jaso ahal izan zituzten txapak, eta urriaren 11n, festa bat egin zen Eskolako sarreran; musika, photocall-a, pegatinak, sagardoa eta txistorra izan genituen, ahalik eta jende gehien izena ematera animatzeko.

Jardunaldian zehar, hamarnaka pertsonak erantzun zioten deialdiari, eta ekimenak proposatzen dituen rol batean edo bestean izena eman zuten,

Azaroaren 23an, Euskaraldiaren 11 egunetatik lehenengoan, Eskolako langileek eta ikasleek Campuseko gainerako ikastegiekin bat egin zuten, Euskaraldiaren argazki ofiziala ateratzeko Arabako Campusean.

Abenduaren 3an, euskararen egunean eta, aldi berean, Euskaraldiaren amaieran, Eskolako 15 AZPko langile eta IIPek elkarrekin bazkaldu zuten Eskolako kafetegian.



Reconocimientos y Publicaciones:

Inizia T-Iker Sariaren I. edizioa

Arabako Campuseko Errektoreordetzak sari hauen lehen edizioa antolatu zuen; ekimenaren helburua da enpresa ekimen berritzaileetan isla daitezkeen ideiak sustatzea.

Ikertzaile taldeek sortzen duten berrikuntza merkatura irits dadila sustatzea, unibertsitate sarean ekintzailetasuna babestu eta hedatzea, eta unibertsitateak berrikuntzarako duen gaitasunari etekina ateratzea, balio handiko enpresak sortzeko; horiexek dira deialdi honen helburuak.

Edizio honetako irabazlea [TFM Research](#) taldea izan da, erakundeetako teknologia inteligentziari buruzko proiektu batekin. Technology, Foresight and Management (TFM) taldeak

informazio teknologia aztertu eta analizatzen du, enpresetan erabiltzeko. Taldearen gaitasuna datu teknologikoak prozesatu eta analizatzea da; horri testu teknologikoen meatzaritza (Tech-mining) esaten zaio, eta teknika hori industriarako teknologia berriak hauteman, ebaluatu eta txertatzera bideratuta dago. UPV/EHUKo Enpresen Antolakuntza Sailaren barruan dago, Vitoria-Gasteizeko Ingeniaritza Eskolan, eta Rosa María Río Belver arduratu zen aurkezpenaz.

Zorionak!!!



Ortzi Akizu irakaslearen doktorego tesia

Adierazpen Grafikoa eta Ingeniaritzako Proiektuak Sailaeko gure kide Ortzi Akizuk bere lana aurkeztu zuen azaroan, arrakasta handiz. Jarraian, bere ikerketa ildoan laburpen txiki bat uzten dizuegu. Zorionak, Ortzi!

PLANGINTZA ENERGETIKOAREN EREDU BERRIEN KUANTIFIKAZIOA, DISEINUA ETA EZARPEN METODOLOGIAK, GARAPEN SOZIOEKONOMIKORAKO

Tesi hau beste urrats bat da energia eredu iraunkor bat izateko trantsizioaren definizioan. Hiru atal hauek ditu: analisi kualitatibo orokor bat, trantsizioak definitzeko hala Iparralde Globaleko herrialdeetan, nola Hegoalde Globalekoetan; azterketa kuantitatibo bat, eskala txikian egindako Bottom-up trantsizioen lorpenak baloratzeko eta herrialdeko batez bestekoekin alderatzeko; eta, azkenik, 126 herrialderen Desahokatze Indizearen kalkulua, herrialde bakoitzaren energia kontsumoaren (aztarna energetikoaren kalkuluak oinarri hartuta) eta dagokion Giza Garapenaren Indizea kontuan hartuta.

Lehen atalean, energia trantsizioen diziplina anitzeko analisia egin da, azterketa kasuen metodologia erabiliz, bost herrialde kontuan hartuta, bai Iparralde Globalekoak, bai Hegoalde Globalekoak: Brasil, Kuba, Ekuador, Alemania eta Espainia. Analisia Ekopol eta Parte Hartuz ikerketa taldeekin eta Euskadiko Ekologistak Martxan herri mugimenduekin elkarlanean egin da. [! rtiÉ ulo'dhttps://doi.org/10.1016/j.ijhydene.2017.04.297](https://doi.org/10.1016/j.ijhydene.2017.04.297)

Bigarren fasean, energia trantsizioari dagokionez garrantzitsuenak diren Alemaniako hiru komunitateak aztertu dira: Sieben Linden (eko-herrixka edo komunitate intentzionala), Solar Settlement (auzo hiritar iraunkorra) eta Feldheim (landa eremuko auzo iraunkorra). Elkarrikerak sakonak egin dituzte, tokian bertan, eta honako hau neurtu dute: etxeetako energia kontsumoan egondako murrizketa, Total Primary Energy Supply (TPES) izenekoan egondako murrizketa, instalatutako potentziaren gorakada eta tokian toki sortutako energia berritzagarrien integrazio ehunekoa. [Artikuluak: https://doi.org/10.3390/en11040849](https://doi.org/10.3390/en11040849)

Azken atala Australian egin da, New South Wales (UNSW) unibertsitatean, Thomas Wiedmann irakaslearen ikerketa taldearekin; Basque Center of Climate Change eta Tecnaliak ere laguntza eskaini dute. Erabili diren metodologiak Global Multiregional Input-Output (GMRIO) eta

Eora, WIOD, OECD, EXIOBASE y GTAPdatu baseak izan dira. Horrez gain, Energiaren Nazioarteko Agentziaren energia kontsumo datuak ere erabili dituzte, herrialdekako sektore kontsumoaren bektoreak sortu ahal izateko. [d ! rtiÉ ulo'd https://doi.org/10.1016/j.jclepro.2018.08.235](https://doi.org/10.1016/j.jclepro.2018.08.235)

Hiru atal horien baturari esker, trantsizio inklusibo eta bidezko bati ekiteko oinarritzko helburuak definitu ahal izan dituzte, mundu mailako askotariko beharrianak kontuan hartuta. Zenbait komunitatek trantsizio energetikoaren arloan erdietsi dituzten herrialdearen batez bestekotik gorako lorpenak bildu dituzte, eta energia kontsumoaren desahokatze birtualak hauteman; izan ere, herrialde garatu batzuk energia gutxiago kontsumitzen ari dira itxuraz, baina, produktuetan, zerbitzuetan eta inportatutako ondasunetan sartutako energia kontuan hartuta, herrialde horiek gero eta energia gehiago kontsumitzen ari dira.



Tarte honetan, gure ikasleei hitza emango diegu unibertsitateko etapan bizi izan dutena parteka dezaten. Halaber, zuen interesekoak izan litezkeen programa eta bekei buruzko informazioa ere emango dugu.

2018ko MotoStudent

ekimenaren 5. edizioa,

aurkezpen ekitaldia.

Urriaren 2an, MotoStudent taldeak jendaurrean aurkeztu zuen proiektuaren harribitxia. Prototipo berriak eta 2018ko modelo eraikitzeko inspirazio eta gidari izan zen aurreko urteko modeloak hurbildu ziren pertsona guztien begirada erakarri zuten. Aldi berean, taldeak motorra fabrikatzeko jarraitutako prozesua azaldu zuen.

Julen Pellejero izan zen aurkezlea, eta taldeak prozesuaren unerik kritikoenak azaldu zizkigun: ordu asko eman dituzte lanean, ikasketak, lagunak eta bestelako zaletasunak alde batera utzita. Sakrifizio horien guztien gainera, proiektuan parte hartu zuten pertsona guztiak irribarretsu zeuden, eta ikusarazi ziguten ahalegin guztiak merezi izan zuela. Anekdotak guztiei eta bertaratu zirenen jakin minari esker, ikusleek galdera ugari egin zituzten motorrari eta lehiaketari buruz: zenbateko abiadura har zezakeen, lasterketan nor aritzen den, finantzaketa nondik lortu duten...

Laburbilduz, arratsalde bikaina izan zen proiektua Eskolako kide guztiei, enpresa babesleei, senideei eta lagunei erakusteko.

Gogora dezagun Iñaki Apaolaza, Daniel Arizmendiarieta, Unai Aranburu, Julen Pellejero, Carlos Varona, Iñigo San Martín, Ane Ibáñez, Uxue Sánchez, Xabier Uralde eta Ander Morquecho ikasleek osatzen dutela proiektua aurrera atera duen taldea, Karle Olalde Arkaitz Durán irakaslearen laguntzarekin, pilotu gisa.



Motorland 2018 Alcañizeko zirkuitua

Prototipoa jendaurrean aurkeztu ondoren, motorra probatzeko unea iritsi zen. Azken orduko ezinbesteko ikara eta ezustekoen ondoren, ekipoak materiala jaso eta Teruelgo Alcañiz zirkuiturako bidea hartu zuen.

Zirkuitura iritsitakoan, ekipoek beharrezko probak gainditu behar izan zituzten, lasterketan segurtasun osoarekin lehiatu ahal izateko.

Kontatzea merezi duen edozein istorio epikok bezalaxe, MotoStudenten abenturak denetarik izan zuen. Igandeko lasterketaren aurreko entrenamendu saioetan, Arkaitz Durán, taldeko gidaria, erori egin zen eta hainbat zauri jasan zituen; hala ere, makuluen laguntzaz, zalantza izpirik gabe igo zen motor gainera lehiaketaren egunean. Arkaitz ez zen izan eroriko horretan kaltetu zen bakarra. Motorrak ere kalteak jasan zituen, eta lehiaketan ez aritzeko zorian egon zen.



Azken postuan atera behar izan zuten, eta gainerako motorrak Eskolaren motorraren aurretik nola ateratzen ziren ikusi; alabaina, Arkaitzek azkar egin zuen gora, eta 16. postu txalogarria lortu zuen zirkuituan.

Asteburu gogorraren ondoren, motorrak nahikoa da esan zuen, eta ez du berriro orrorik egin. Motorra egun batzuetan egon zen Eskolako sarreran, guztiok ikus genitzan Motorlandeko asteburu zirraragarriak eragindako orbainak.

Orain, Eskolako hurrengo MotoStudent taldearen inspirazio iturri izango da. Are gehiago: dagoeneko martxan dago hurrengo proiektuan parte hartuko duten ikasleak hautatzeko prozesua. Edizio honetako taldeak erakutsi duen gogoia eta energia ikusita, ingeniariatzako hainbat maila eta gradutako hemeretzi ikaslek izena eman dute datorren urteko MotoStudent edizioan parte hartzeko.



"Taldea
osoak 5
egun eman
zituen
Alcañizeko

Tailerra Suitzako CERNen:

Arabako Campuseko 10 ikasle Suitzako CERNera joan ziren nazioarteko tailer batean parte hartzeko eta bertatik bertara ezagutzeko mundu osoko ikerketa zentrorik garrantzitsuenetako bateko instalazio ikusgarriak. Talde horretan, gure Eskolako hainbat ikasle egon ziren.

Azaroaren 11tik 23ra izan zen egonaldia, Ginebrako zentroan. Hantxe izan zen Eskolako irakasle Borja Fernández, Hizkuntza eta Sistema Informatikoak Saileko kidea.

Hauek ziren Eskolako ikasleak: Aarón Morán (Ingeniaritza Informatikoa), Sara Alonso (Ingeniaritza Elektronikoa eta Automatikoa) eta Xabier Uralde (Ingeniaritza Mekanikoa). Ikasle horiek hautatuak izan ziren espediente akademikoa eta ingeles maila kontuan hartuta.

Challenge-Based Innovation izeneko proiektu pilotuaren lehen edizioa da; bertan, saio teorikoak eta praktikoak tartekatu ziren Idea Square eraikinean, CERNeko instalazioetan. Saio praktikoetan, ikasleak hiru taldetan banatu ziren, eta Tampereko (Finlandia) unibertsitateko ikasleekin elkarlanean aritu ziren.

Aste eta erdi horretan, zentroko ikertzaileek hainbat informazio saio eskaini zizkieten, ikasleek bukaerako proiektua gauzatzeko behar zituzten tresnak barnera zitzaizkien. Usteak haustea, etorkizuneko egoerak eraikitzea, mikrokontrolatzaileak programatzea eta beste hainbat erronka izan zituen aurrean taldeak.

Bukatzeko, talde bakoitzak gizarteko erronka bat aukeratu zuen, eta erronka hori gainditzeko konponbide teknologiko bat pentsatu zuen.



Ginebrako CERNera joandako espedizioa osatzen zuten Arabako Campuseko ikasleen irudiak, Borja Fernándezekin batera.

Posterren erakusketa

Gabonak iritsi aurretik, posterren erakusketa antolatu zen Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolako bigarren solairuko korridorean; erakusketaren helburua zen Kudeaketa Osorako Sistemak irakasgaiko (euskaraz eta gaztelaniaz) ikasleek egiten dituzten proiektuak ezagutzera ematea. Ingeniaritza Mekaniko, Kimiko eta Elektronikako 4. mailako eta Informatikako Graduko 3. mailako 80 ikaslek parte hartu duten jardueran. Erakusketan, Proiektutan Oinarritutako Ikasketa metodologia erabiliz ikasleek gauzatzen dituzten askotariko jarduerak islatzen ziren. Erakusketa abenduaren 20tik urtarrilaren 10era egongo da ikusgai.



VITORIA-GASTEIZKO INGENIARITZA ESKOLA

Gure webgunea:
[https://www.ehu.eus/es](https://www.ehu.eus/es/web/Ingeniaritza-gasteiz)
[/ web/Ingeniaritza-](https://www.ehu.eus/es/web/Ingeniaritza-gasteiz)
[gasteiz](https://www.ehu.eus/es/web/Ingeniaritza-gasteiz)

Ikaslea, irakaslea, ikertzailea edo administrazio eta zerbitzuetako langilea bazara eta buletin honetan parte hartu nahi baduzu albisteak, esperientziak edo askotariko ekimenetan bizitakoak partekatuz, gure komunitatearentzat garrantzitsua dela uste duzulako, jarri gurekin harremanetan helbide elektroniko edo telefono zenbaki hauen bidez:

maria.gaston@ehu.eus

945 014271



Buletin honetan hizkuntza EZ sexista erabiltzen dugu

(<http://www.ehu.eus/es/web/berdintasuna-direccionparalaigualdadehu.es>)

Vitoria-Gasteizko
Ingeniaritza Eskola

Nieves Cano, 12 01006
Vitoria-Gasteiz
945 01 32 05

